


ESKERGABEA. ¹



Itsasoak esan zion beñ *Eskergabea* deritzan arkaitzari:

—Arkaitza, ¿nai dezu etorri, beste zure lagun asko bezela, nere kolko urdintsura?

—Ez det nai.

¿Nai ez dezu?... Ez dakizu, nonbait, zure gañean bagak ausitzean, eguzkiyak distiaturik, zér milla koloretako boillos ilrusgarriyak egingo ditudan nere apar churiyarekin.

—Badakit; baña ez det zugana joan nai.

—¿Nai ez dezu? Etortzen bazera, nere osiñ ondokayetan ezkutatirik dauzkadan landarerik miragarriyenak itsatsiko dizkitzut, apaindu zaitzaten.

—Ez det nai, zuk emantako apaindurarik.

—¿Nere apaindurarik nai ez dezu? ¿Ote dakizu nolakoak diran, nik eman nai dizkitzudan apaindurak?... Neregan bazatoz, arrai polit dizdizariyak egingo dituzte beren kabiyak zugan. ¡Zeiñ arrigarriya egongo zeran urpean, arrai-kabiz beterik! ... Gizonak, ere, murgilduko dira, zugan arkitzeagatik, bérak ainbeste maitatzen dituzten artisteak.

—Alper-alperrik ari zera, itsasoa. Zure menpean, ezer ez det nai.

—Diozu, ez dezula nere menpean ezer nai?... Bada, nere maitagorik nai ez badezu—esan zion itsasoak itzera marrutsu bildurgarriyarekin—izango dezu nere aserre gogorra; beti, beti, nere indar guzti-guztiyakin zeatuko zaitut, *eskergabea*.

Eta arrazkero, izen onekin ezagutzen da arkaitz ura.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.



(1) Getariyatik urrean, San Anton-go ugartetik desitsatsirik dagoen arkaitz bat.